

ENERGIA ZENTZUZ
BALIATZEKO UDAL-PROGRAMA

Energia aurkitu eta konta ezazu



Aurten, berriro ere, Iruñeko Udalak, Energia Agentziaren bidez, Energia Aurkitu eta Konta Ezazu programa eskaintzen dio hezkuntza-erkidegoari. Aurtengo edizioan bost heziketa-lantegik osatzen dute programa, eta horiek energia berriztagarriak, klima-aldaketaren kausak eta ondorioak eta mugikortasun iraunkorra jorratuko dituzte.

Nori zuzentzen zaio programa?

Iruñeko ikastetxe publiko zein itunpekoetako Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakako ikasleei. Lantegiok bereziki gomendagarriak dira zientziei, teknologiari eta horiei lotutako irakasgaien gaitegien curriculum osatzeko. Tutoretza-orduetan ere egin daitezke. Programak, bestalde, barne hartzen du interesa duten irakasleendako aholkularitza emateko aukera, ordu beteko tutoretzen bidez, lantegiak egin aurretik orientatzeko, edo, gaietan sakontze aldera, lantegien ondoren egin ditzaketen jardueren berri emateko.

Zer lortu nahi dugu?

Ohartaraztea energiaren aurrezkiaren eta eraginkortasunaren oinarritutako kultura berri baten muntaz, iraunkortasuna ahalbidetzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko. Hezkuntza-erkidegoa engeiatu nahi dugu bizitzaren esparru guztietan energia aurrezki eta modu eraginkorrean erabiltzeko jarrerak bilatu eta ezar ditzan, betiere banakoen jarrerari garrantzia emanaz, aldaketa orokorra lortzeko.

Nola egingen dira lantegiak?

Lantegi bakoitzak 55 minutu iraunen du, eta ikastetxean bertan egingen da. Lantegi guztien metodologia partizipatiboa izanen da, malgua, ludikoa eta motibagarria, programatutako jarduerari probetxu handia ateratze aldera. Lantegiak egoki egiteko, ezinbestekotzat jotzen dugu irakaslea bertan egotea, bai eta hori elkarlanean aritzea ere programa garatzearen ardura duen ingurumen-heziketako adituen lantaldearekin.



LANTEGI-ESKAINTZA

FUNTZIONATZEN DUTEN ENERGIAK

Helburuak

- Energiaren inguruan egun dugun arazoa aztertzea, kontsumoari, prezioari eta energia-iturrien banaketari dagokienez.
- Gogoan hartzea energia-iturrietan zein diren berriztagarriak eta zein ez, eta batzuen eta besteen abantailak eta desabantailak aztertzea.
- Ohartaraztea energia berriztagarriak eta garbiak (eguzki- zein haize-energiak eta biomasa) erabiltzearen abantaila buruz.

Lantegiaren garapena

Lantegiari hasiera emateko, dinamika soil bati ekingo diogu, gogorarazteko zenbateraino bizi garen energiaren mendean, eta gero banan-banan begiratu emanen diegu erabiltzen ditugun energia berriztagarri zein berriztaezin guztiei. Ikastaldeko kideak lau taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari energia-iturri bat esleituko zaio. Taldeek zeinek bere energia-iturriaren abantailen aldeko argudioak bilatu beharko dituzte, eztabaida batean defendatze aldera.

KLIMA-ALDAKETA: NI ERRUDUN?

Helburuak

- Klima-aldaketa zertan den ezagutzea, bai eta haren kausak eta ondorioak ere.
- Klima-aldaketari lotutako arazoak erakustea norbere erantzukizunaren adierazle den aztarna ekologikoaren bidez.

- Aldaketa orokorra lortzeko banakoen jarduerak duten garrantziaz ohartaraztea.

Lantegiaren garapena

Klima-aldaketaren kausak eta ondorioak aztertuko ditugu, prentsan agertutako albiste zirrargarri batzuk baliatuta. Klima-aldaketaren eta gure bizimoduaren arteko zuzeneko lotura ulertzeko, ikastalde osoaren aztarna ekologikoa kalkulatu dugu on-line galdetegi baten bidez. Bestelako errealitateekin harremanetan jartzea bultzatze aldera, simulazio-jolas bat eginen dugu non talde batzuk herrialde garatuak izanen baitira, eta besteak, garapen-bidean daudenak.

WATT-IRENSLEAK

Helburuak

- Jabetzea hala energiak gure eguneroko bizitzan duen eraginaz nola hura modu jasangarrian erabiltzeak duen muntaz.
- Hala ikastetxean nola etxeetan energia gehien kontsumitzen duten guneak zein diren ezagutzea.
- Energia-aurrezkoa sustatzea hala ikastetxean nola etxean, ingurumenerako jasangarriak diren jarrerari lotuta.
- Energia garbien adibideak ematea.

Lantegiaren garapena

Energiak gure bizitzan duen garrantzia aztertuko dugu. Gero, taldeka, energiari buruzko eko-ikuskapen bat eginen dugu, ikastetxean, bertako kontsumoak zenbat jotzen duen kalkulatzeko. Lantegiari amaiera emateko, parte bat eskainiko diegu hausnartzeari eta irtenbide errealistak proposatzeari hala ikastetxean nola etxeetan energia-aurrezkoa areagotzeko.

URRE URDINA, ESKU BELTZA

Helburuak

- Kontsumoaren eta klima-aldaketaren artean dagoen lotura zuzena ezagutzea.
- Ezagutzera ematea zaharkitzapen programatua zer den eta kontsumismoarekin eta hondakinak sortzearekin zer lotura duen.
- Parte-hartzaileak ohartaraztea aldaketa orokorra lortzeko banakoen jarrerak duten garrantziaz.
- Gazteen artean jarrera kritikoa sustatzea kontsumo irrazionalaren aurrean.

Lantegiaren garapena

Ingurumen-hezitzaileak prentsako titullarrak erakutsiko ditu gailu elektronikoak –hala nola sakelako telefonoak, bideo-jokoen kontsolak, ordenagailuak eta abar– egiteko erabiltzen den koltan minerala erazteak dakartzan gizarte- eta ingurumen-ondorioei buruz. Behin ikastaldeak mineral hori eta bere erabilera, prezioa eta garrantzi geopolitikoa ezagututa, hezitzaileak bidaia harrigarria egitera gonbidatuko ditu parte-hartzaileak, hots, erazten duten herrialdetik koltanak gure etxeetara gailu elektroniko gisa iritsi arte egiten duen bidaia.

HIRIA MUGITZEN DA

Helburuak

- Ezagutzea hirian barna modu jasangarrian ibiltzeko dauden manierak.
- Aldaketa orokorra lortzeko banakoen jarrerak duten garrantziaz ohartaraztea.
- Gogoeta egitea hirietan mugikortasunaren inguruan dauden arazoei buruz.

Lantegiaren garapena

Aztertu eginen dugu nola joaten diren parte-hartzaileak ikastetxera, eta ideia-zaparrada baten bidez mugikortasun iraunkorra terminoa zedarrituko dugu. Gero, simulazio-jolas bat eginen dugu, hiriko auzo batean bidegorri bat eraikitzeari buruz. Parte-hartzaileak sei taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari argibide garrantzitsuak jasotzen dituzten txartel batzuk banatuko zaizkio, proposamenak egin edota argudiatu ahal izan ditzan. Jolasak ondoko eztabaidarako oinarria emanen digu, bizikletaren erabilera aritzeko garraibide hiritar, iraunkor eta seguru gisara.

Lantegi guztien behar teknikoak

Ikastetxeek ordenagailua, bideo-proiektagailua edo pantaila digitala jarriko dituzte lantegiak egin behar dituzten langileen eskura.

Lantegiak hitzartu eta zalantzak argitzeko

Argibide gehiago jaso eta Programan izena emateko, gure Idazkaritza teknikora jo dezakezu telefonoz (681 268878) zein emailaz (reservas@descubrelaenergiaycualo.com).

Horrez gain, www.descubrelaenergiaycualo.com blogean programa osatzen duten lantegiak egiteko agiri guztiak aurkituko dituzu, bai eta bestelako argibideak ere, ikasgelan energiari lotutako gaiak jorrazteko.